

«Saharako istorio bat da, baina edonon gerta daitekeena»

Ekain Albite • 'Haizearen egia' film laburraren zuzendaria

Zuzendariak fikzioa aukeratu du, «Saharako herriak ere baduelako istorio ezberdinak modu ezberdinean kontatzeko eskubidea». Dena den, helburuetako bat bada Sahararren egoera ez ahaztea.

Miren Garate

Joan den astean estreinatua zuen Ekain Albitek (Zumaiola, 1999) *Haizearen egia* film laburra. Euskal Herrian bizi den saharar bat da protagonista: Tahar. Aita hiztorian duela abiatatu diote, eta etxera itzuli behar du, errefuxiatuen kanpalekura. Itzulerara horretan, oroitzapenetan, iraganari eta kontraesanetan egin beharko die aurre. Filma «ezta hainda berpizteko tresna» izatea nahi du zuzendariak.

Nondik nora etorri da proiektu hau?

Darrahil izeneko elkarte bat dago Zumaiolan, eta 15 urteko jendea sahararren kanpalekuetara bidala bat egiteko aukera ematen die, hango errealitatea ikusteko. Adin horretan joan nintzen ni ere, eta konturatu nintzen mundua, nik uste nuenaren aldean, handia eta ezberdina zela. Oso jende umila eza gutu nuen, asko sufritu duen herri bat. Orduan Sahararekiko maitasun horrek hor segitzen zuen. Darrahilkoekin zerbait egin nahi zuten; ni zinema ikastera nindoan, eta horrelaxe proposatu nien film laburra egitea.

Maluta Filmsek ekoiztu du. Baldintza bakarra jarri omen zizuten: paternalismorik ez.

Beldur hori hagenuen bai. Ez genuen nahi hain pentsatzea: «Badator europarrak kristoren kamerekin, erabiliko dute Sahara antzerleku moduan, alde egingo dute, eta kontatutakoak ez du hemengo errealitatearekin inolako konpromisorik izango». Proiektu honetan sahararrak sail artistiko la gutzietan daude; gidolan asko lagundu dute, eta abar.

Fikziozko filma izatea erabaki duzu. Zergatik?

Konturatu ginen sahararren errefuxiatu kanpamentuetan egindako ikus-entzunezko guztiak dokumental historikoak zirela. Pentsatu genuen Saharako herraldeak ere istorio ezberdinak modu ezberdinean kontatzeko eskubidea zuela; horregatik, Saharako istorio bat da, baina edonon gerta daitekeena.

Hiztorian dagoen aitaren gorputza garbitzera doa protagonista etxera.

Aita garbitzera bueltatu behar du, eta, bien bitartean, bere herriko lekua eta lagunak aldatu egin dira; ahaztu egin zaitzkie

ohitura batzuk, hitz-kuntza ere ez du menderatzen... Hala ere, erantzukizun handiko ekintza kultural hori egitera behartuta dago protagonista. Talka hori sortu, eta zauri hori irekitzera behartzen dugu protagonista, eta egitura narratibo interesgarri bat erabili dugu horretarako, oroitzapen moduko batzuekin jolasten baitu protagonistak. Munduan ihili diren asko sentitu dira atzerriar etxera bueltatutakoan.

«Beren burua istorio horretan ikusi zutela esan zuten, eta horrek izugarri lasaitu ninduen»

Saharari begira, zein zen zure helburua?

Zineak extabiatdak eta ideiak mahai gainean jartzeko gaitasuna du, sentimenduak alde batetik bestera mugitzeko, eta abar. Indar hori erabili nahi genuen Sahararen gaia berriz ere mahai gainean jartzeko. Galtzen ari den gal bat da, gero eta familia gutxiagok hartzen dituzte umeak, eta uleragarria da, nekea dagoelako, baina, horregatik, momentu



HITZA

oro herpizten joan behar dugu, eta gure lana horretara bideratu dugu, jendea berritza ere kargatzen.

Zinema ikasketak egiten ari zara Bartzelonan, eta hau izan da zure lehen lan profesionala. Nolako esperientzia izan da?

Gogorra, intentsitate handikoa eta barnekoa. Sahararren egunerokoa sartu gara, beren inimitatean, eta beldur puntu bat ematen du horrek: ateak ireki ditxigute, eta gure lana zen leialak izatea eta grabaketa ahalik eta errespetu handienarekin egitea. Material arazo handiak izan genituen, teknika arazoak, baina, beraien mentalitateari eutsiz, aurrera jarraitu genuen, eta lortu genuen filmaketa amaitzea.

Joan den astean izan zen estreinaldia. Zer esan zizuten ikusleek?

Sahara asko etorri ziren, eta beren burua istorio horretan ikusi zutela esan zuten. Horrek izugarri lasaitu ninduen.

Zein bide egingo du orain filmak?

Zinema jataldietara banatuko dugu, tematikoetara nahiz jeneralistetara, istorio jeneralista bat delako. Bestelako banaketari dagokionez, printzipioz aurrera Euskal Herrian, Galizian eta Katalunian hasiko gara, eta gero Espainiako lurraldeetan. Beti Saharako elkarteetan laguntzarekin egin nahi dugu, filmaren ostean etabaketa bat sortzeko, uste baitugu etabaketa berpizteko tresna bat dela filma.



ITSAS MENDI Karabanak

Ereip. Nazionala 1 • 20140 ANDOAIN
Tel.: 943-59 32 90 • Fax: 943-59 41 73
itsasmendi@itsasmendi.com • www.itsasmendi.com



KARABANAK



KNAUS ERJBA

Furgoneten eraldaketa
Salmenta ondorengo zerbitzu bermatua
Larunbat goizean zabalik

HYMER
KNAUS
BENIMAR
PILOTE



AUTOKARABANAK